

GIL 118 Barrikako tolesturak, Txitxarropunta-Kurtzio



Airetiko ikuspegia (Google Earth), marea behean dela; Barrikako tolesturaren sekzio horizontala, batere ohikoa ez dena, ikusten da.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 18' 0.52" N

Long.: 2° 16' 4,39" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 502.259,94 m

Y: 4.806.042,94 m



Nola iritsi

Sopelatik Plentziara doan errepidea hartuta (BI-2122), Elexalde auzoa baino lehen, Zearretako biribilgunean (24. kilometroan dago), mendebalderanzko desbideratze bat dago, aparkaleku zabal batera doana. Aparkalekuko behealdetik, hondartzara eta labarretara jaisteko eskaileretara doan bide bat ateratzen da.

Aipatu beharrekoa da labar horretara itsasbeheran joan behar dela beti eta eskailerak igo behar direla mareak gora egin baino lehen.



Airetiko beste argazki bat (Google Earth), marea behean dela: sekzio horizontaletik labarreko sekzio bertikalerako iragatea ikus daiteke, eta toles-interferentziako egiturak agertzen dira.

Deskribapena

Labar horietan, azaleratzeen kalitatea ikusgarria da. San Valentin haitzetik, iparraldean, Kurtziope puntaraino, hegoaldean, labar-sekzio jarraitu bat dago. Han, askotariko toleste- eta zamalkatze-egiturak ikusiko ditugu, eta ezkata tektonikoak, duplexak, etab., bai eta haiei elkartutako eskala txikiagoko egiturak ere (diaklasak, faila-ildaskak, txanga hautsiak...). Bizkaiko sinklinorioko ipar-alpean kokatutako Cenomaniarreko eta Turoniarreko materialetan garatu ziren egitura horiek. Adin horretako materialak flysch hareadun bati eta flysch karedun bati dagozkio, eta badira, tarteka, ekarpen bolkaniko batzuk ere. Material horiek zenbait aldiz errepikatzen dira, bi zamalkadura handi baitaude, zeinek Cenomaniarreko materialak Turoniarreko flysch karedunaren gainean ezarri baitituzte.

Nabarmentzekoa da, halaber, egitura horiek bi sekziotan ikus daitezkeela, eta hori ez da batere ohikoa. Labarraren sekzio bertikalean, egiturak eta materialak plano bertikal edo ebaki estruktural batean irudikatuta ikusten ditugu; abrasio-plataforman, berriz, itsasberheran, egitura horiek mapa geologiko batean ikusiko liratekeen moduan irudikatuta ikus ditzakegu.

Begi-bistan egitura asko daude deskripzio xehe bat merezi luketenak, baina hiru sekzio bakarrik aipatuko dira, egitura esanguratsuak dituztenak hala esanahi geologikoagatik nola ikusizko balioagatik.

Txitxarropuntan, ipar-bergentziako toles angeluar ikusgarriak daude, eta iparraldeko murturrean falka tektoniko bikoitz bat ikusten da, gero xaflatua eta ipar-bergentziako fase tertziarioak tolestua, zeinak adierazten baitu toles-interferentziek eragindako egiturak daudela.



Chevron motako toles angeluarren ohiz kanpoko azaleratzea Goikomendiazpiko senadian; hori dela eta, "toles angeluarren Kapera Sixtinoa" esaten diote geologoek lekuari.



Goikomendiazpiko senadiko toles angeluarren airetiko argazkia. J.C. Iturrondobeitiak utzitako argazkia.

Barrikako hondartzako eskailerak jaitsi bezain pronto, NE-an ipar-bergentziako anti-klinial handi bat ikus daiteke, hego-alpean faila askoren eragina jasan duena. Zenbait egitura-motaren arteko interferentziak ere ikus daitezke, bai eta lehen tolestura baino lehenagoko falka txikiak ere. Oinplanoan, halaber, zenbait faila ikus daitezke osagai horizontalak dituztenak. Osagai horiek tolestura tertziarioaren bi faseen izaera traspresibo destrogira adierazten dute.

Azkenik, Goikomendiazpi izeneko senadian, *chevron* motako toles angeluar ikusgarriak daude. Horregatik, leku horri, "toles angeluarren Kapera Sixtinoa" esaten diote geologoek. Senadi berean baina pixka bat SW-rago, toles-interferentziak sortutako irudi bat ikus daiteke (arrain-isatsaren forman), erakusten diguna zer konplexua den deformazio tertziario alpetarra sektore horretan.

Egituren azterketatik abiatuta, bi deformazio-fase inferi daitezke, alderantzizko bergentziakoak: lehena NE-rantz, eta bigarrena SSW-rantz.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 117, GIL 132, GIL 49, GIL 44, GIL 96, GIL 35, GIL 127, GIL 90.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 117, GIL 118, GIL 119, GIL 120, GIL 121, GIL 122, GIL 125, GIL 126, GIL 127.



Iparralderanzko bergentzia duen antiklinal bat, tamaina handikoa.



Txitxarropunta inguruko toles angeluarrak.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				●
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- CUEVAS, J.; EGUILUZ, L.; RAMON-LLUCH, R. eta TUBIA, J.M. (1982).- *"Sobre la existencia de una deformación tectónica compleja en el flanco Norte del sinclinal de Oiz-Punta Galea (Vizcaya): Nota preliminar"*. Lurralde, 5. liburukia, 47-61 or.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. *Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121. or. ISBN: 84-7585-927-5.
- MAGNA, 37. zk.
- EVE 37-IV zk.